

BI MILA ETA HOGEIKO URTARRILAREN ZORTZIAN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Arrietan 2020ko urtarrilaren zortzian, 19:00etan Udalaren Osoko Bilkura osatu du udaletxeko Bilkura Aretoan, Aitor Agirre Urkidi alkate Jauna Udalburu dala, eta ondoren adierazoten diran zinegotziak dagozala:

Itxaso Otazua Etxebarria
Jesus Mari Gondra Zubieta
Ander Etxebarria Olalde
Gartzen Agirregoitia Abad
Ana Gonzalez Gil
Theo Norbert Bodo Reichenberger

Carlos Laucirica Careaga idazkari izanda, eta kide kopuru nahikoa bertaratu dala ikusita, Udalburuak bilkura hasitzat emon dau, eta aztertzeko eta eztabaidatzeko dagozan aztergaiei ekin jake.

I.- BI MILA ETA HEMERETZIKO AZAROAREN HOGEITA SEIAN, EGINDAKO BILKURAREN AKTAREN IRAKURKETA ETA ONARPENEA.

2019ko azaroaren hogeita seian egindako aktaren zirriborroa irakurri ostean, Udalbatzak, aho batez, hauek onartzea erabaki du.

II.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Alkate Jaunak Alkate Dekretuen berri emon dau. Honako hau da edukia:

- Aitor Aurrekoetxea Lopezek aurkeztutako obra amaierako baimenaren eskaera.
- Fakturen onarpena. (2)

III.- BIDE PUBLIKOEN INBENTARIOAREN HASIERAKO ONARPENEA.

2019ko apirilaren lauan, Sendo S.L. enpresak egindako Arrietako bide publikoen inbentarioa onartu zen behin behingoz.

Horretarako irekitako jendaurreko informazio-aldian aurkeztutako alegazioei buruzko txostenak ikusita.

Eztabaida baten ostean, Udalbatzak aho batez, jendaurrean jartzeko epea bi (2) hilabetez luzatzea erabaki du, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Arrietako udaleko ediktu-oholetan iragarki bat jarritz, berriz ere egoki iritzitako alegazioak egin ahal izateko eskubideak hobeto defendatzeko.

IV.- “MARI DOMINGI” EROSTEKO ESKAERA

Nuria Pousak honako eskaera hau aurkeztu du:

“Bi taldeek eskatu nahiko genuke : “Mari Domingi” irudia (edo panpina), Olentzero dekogun bezala, gabonetan plazan ipintzeko.

Andrazkoen “presentzia” espazio publikoetan eta gure ospakizunetan bermatzeko....”.

Estabaidatu ostean, Udalbatzak, aho batez, “Mari Domingi” erosteko aurrekontuak eskatzea erabaki du eta 2020ko urritik aurrera berriz ere gaia lantzea.

V.- ALKATEAREN DEDIKAZIO PARTZIALA.

Alkateak jakinarazi du kontratuak eta nominak daramatzan aholkularitzak udalerritik kanpoko bileretara joateagatik dietak jasotzeak sortzen dituen zalantzak jakinarazi dizkiola eta karguari dedikazio partziala aitortu zaiola. Dedikazio partzialaren erabakia, bileretara joateagatik dieta barne (osoko bilkurak eta batzordeak izan ezik), 60 €/ bilera gehi joan-etorrien kostua, 2019ko uztailaren 3ko osoko bilkuran hartu zen.

Hori dela eta, udaleko aholkulari juridikoak txosten bat idatzi du, eta bertan, ondorioen atalean, honako hau adierazi du:

"I.- Partaidetza eginkizunen dietaren kontzeptua ez da bateragarria alkate jaunari dedikazio partzial bat aitortzearekin.

II.- Beste erakunde eta organismo batzuek deitutako bileretara, prestakuntza-jardunaldietara eta bestelako saioetara joatea ondare-galera bat da, eta kargua betetzean sortutako gastu efektibo gisa ordaindu behar da. Alkateak lan-ordutegian joan behar du bilera horietara, bere dedikazio partzialeko erregimenaren arabera lan egiten duen enpresari eskaini beharko lioke eta.

III.- Osoko bilkurak du aurretik onartutako dieta ezabatzeko eta gastu eragingarri horrengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortzeko eskumena eta kalte-ordainaren zenbatekoak eta hori justifikatzeko prozedura ezarri beharko ditu, aurreko 18. paragrafoan ezarritako moduan ".

Alkate jaunak adierazi du bere lan-orduetan bileretara joanez gero galera bat duela, eguneko nominatik 181 €-ko deskontua , orduko 30 € ingurukoa, eta beste erakunde eta organismo batzuek deitutako bilera, prestakuntza-jardunaldi eta bestelako saio guztiek bi orduetik gorako iraupena dutela eta bere asmoa sortutako egoera legeztatzea dela.

Udalbatzak, EAJ/PNV talde politikoaren aldeko botoekin eta EH Bildu talde politikoaren abstentzioarekin Udalbatzak 2019ko uztailaren 3an hartutako erabakiaren zati bat baliogabetzea adostu du, alkate jaunak udalerritik kanpo dituen dietei eragiten diena, kilometroak eta aparkalekuak kobratzearen zenbatekoari buruzko erabakia berrestea eta alkate jaunak kalte-ordaina jasotzeko duen eskubidea onartzea, beste erakunde batzuek deitutako bileretara, prestakuntza-jardunaldietara eta bestelako saioetara joateagatik 30 euro/orduko (gehienez ere, 60 euro), gehi joan etorriko gastuak.

Justifikatzeko moduari dagokionez, alkate jaunaren erantzukizunpeko adierazpen bat eskatuko da bertaratzen den bilera bakoitzerako. Adierazpen horretan, eskaintako ordu-kopurua eta dagokion kilometrajea adieraziko dira, eta horrekin batera,

beste erakunde eta organismo batzuek deitutako bileren, prestakuntza-jardunaldien eta bestelako saioen deialdia eta, hala badagokio, aparkalekua justifikatzeko tiketa aurkeztuko dira.

VI.- LAN PENTSION-BIZITZA-DUINAREN GREBA BABESTEKO EBAZPEN PROPOSAMENA.

“Lan Pentsio-bizitza-duinaren greba babesteko ebazpen proposamena”ren mozia irakurri da. Honakoa da edukia:

“ EBAZPENAREN IZENBURUA

Lan- pentsio- bizitza-duinaren aldeko greba babesteko ebazpen proposamena.

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugari herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu zuten, prozesu parte-hartzaile baten bidez. Orduz geroztik eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditu.

Bestetik, Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen; bide horretan, pentsioen eremuaz gaindi, modu zabalagoan “planto” egiteko beharra plazaratu dute, euren aldarrietatik harago joateko asmoz.

Orain, aipatu planteamenduaren haritik, mugimendu bien arteko konfluentzia eman da, pentsiodunen eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren artekoa, alegia, lan baldintza, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokari aurre egiteko.

Konbentzimendu hirukoitz batek batu ditu: batetik, pentsioena denon afera da, oraingo pentsiodunena nahiz etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira. Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki behar dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintzari eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanaz.

Ezarriak dituen ardatz nagusiekin bat egiten dugu, alegia: aberastasunaren birbanaketa, sektore publikoaren lidergoa, eskubideen unibertsaltasuna, euskararen normalizazioa, lurraldeen arteko oreka, jendartearen beharren arabera antolakuntza (lehen sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea...).

Horregatik, Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Adarrikapen Taularekin bat eginez, ondorengo ebazpen proposamena aurkezten dugu.

EBAZPEN PROPOSAMENA

Horiek horrela, Gure erakundeak

- 1.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko grebari bere atxikimendua adierazi nahi die.

2.- Lan- pentsio- eta bizitza-duinaren aldeko greba egin ahal izateko erraztasunak eskainiko dizkie Erakundeko langileei.

3.- Euskal Herriko Karta Sozialak pentsiodunen mugimendurekin batera adostu duen Aldarrikapen Taularekin bat egiten du, eta horregatik

3.1. Madrilen osatuko den Gobernuari eskatzen dio

- 2011 eta 2013ko erreformetan onetsitako pentsio-murrizketak indargabetzea.
- Zapateroren eta Raxoiren lan-erreformak bertan behera uztea.
- Presazko izaeraz Seguritate Sozialaren eta Enplegurako Politika Pasiboen gaineko eskumenak transferi ditzala.

3.2. Gasteizeko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die

- 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzeko neurriak presazko izaeraz ezar ditzatela.
- Hileko 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzeko neurriak abiatu ditzatela.
- Hitzarmen kolektiboetan ultraktibitate mugagabea eta herrialdeko hitzarmenen aplikazioa estatu mailako hitzarmenen gainetik lehenetsiak izan daitezen sustapen lana burutu dezatela.
- Lanera bizirik itzultzeko eskubidea bermatzea.
- Lan Ikuskaritzako plantillak handitzea, Europar Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta laneko gaixotasunen aurkako ekintza planak abiatzea.
- Lan-harremanetarako eta babes-sozialerako esparru propioaren aldeko neurriak abiatzea.

3.3. Erkidego eta Lurraldeko Gobernuari eskatzen die

- Gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala amaitzeko neurri zehatzak aktibatu ditzatela.

- Enplegu egonkorra sustatzea eta kontratazioan ematen den iruzurra zigortzea.
- Soldata gutxitu gabe lanaldia 35 ordura jaisteko neurriak abiatzea.
- Bereziki emakumeei ezartzen zaizkien lanaldi partzial inposatuak ezabatzea.
- Zerbitzu publikoak garatzea, ezarritako murrizketak atzera botatzearekin batera.
- Kontratazioan sexuaren, jatorriaren, ideologiaren, sexu-identitatearen, aniztasun funtzionalaren edo ekonomia-jardueraren arabeko diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea.
- Klausula sozialak ezartzea administrazioko kontratazio guztietan.

4.- Gure Erakundearen adostutako ebazpen hau Eusko Jaurlaritzari, Lurraldeko Gobernuari eta Euskal Herriko Karta Sozialari helaraziko zaie.

Udalbatzak, municipal EAJ-PNV talde politikoaren ezezko botoekin eta EH Bildu talde politikoaren aldeko botoekin aurkeztutako mozioa ez onartzea erabaki du.

VI.- NORBERAK LEKARKEENA.

Ez dago galderarik.

Eguneko gai-zerrendan beste aztergairik ez dagoanez, Alkate jaunak amaitutzat jo dau bilkura zortziretan. Bilkura horren barri honako akta honetan jaso da, eta hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko da onartu ahal izateko.